BUSTURIALDEKO GAZTE ENPRESAK SORTZEKO ETA SENDOTZEKO DIRULAGUNTZAK - 2024

OINARRIAK

Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Foru, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrietako udalek eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetza-hitzarmena sinatu dute. Xedea, lankidetzarako esparrua ezartzea da, «Gaztedi Busturialdea» proiektua garatzeko eta burutzeko, udalerri horietako gazteriaren arloko politika integrala ezarriz, sustatuz eta garatuz, gazteriaren arloko 'Bizkaia Gazteak' estrategiarekin bat etorriz.

1. XEDEA

Gaztedi Busturialdea proiektuak biltzen dituen herrietan erroldatutako gazteek enpresak sortu eta honeek sendotzeko dirulaguntzak ematea.

2. ZUZKIDURA EKONOMIKOA

15.000,00 €

PAGE * MERGEFORMAT 2

3. LAGUNTZAREN ONURADUNAK

Gaztedi Busturialdea proiektua osatzen duten udalerrietan erroldatutako 35 urtetik beherako gazteak (Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Foru, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta/edo Sukarrieta).

4. LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

2.500,00 € *

** Baldin eta eskaera egin arte egindako inbertsioa 600 €-tik gorakoa bada.*

5. BALDINTZAK

Laguntzen onuradun izateko bete beharreko baldintzak honako hauek dira:

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) eta Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) edo baliokidean alta emanda egotea: 2023/01/01 – 2023/12/31, biak barne.
- Edozein forma juridiko izatea.
- Bazkideetako batek, gutxienez, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

✔ Gaztedi Busturialdea proiektua osatzen duten udalerrietako batean erroldatuta egotea, gutxienez, EJZn alta eman aurreko urte jarraitu batean.

✔ 36 urte bete barik izatea EJZn alta emandako datan.

▪ EJZn eta LAABn alta emateak etengabea izan behar du hasierako alta-datatik laguntzen ebazpen-datara arte.

▪ Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emateak eta Negozio Planak zuzeneko lotura izan behar dute.

6. ESKABIDEAK: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA, EPEA ETA MODUA

Eskabidea, sustatzaileak berak (edo sustatzaileetako batek) pertsonan eroan beharko du (ez da onartuko aholkularitza enpresek aurkeztutako dokumentaziorik).

Balorazio-irizpideak (I. Eranskina)

Eskaera bat baino gehiagoren artean berdinketa egotekotan, Gaztedi Busturialdea proiektua osatzen duten udalerrien arteko banaketa bidezkoa izango dela bermatuko da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

✔ Sustatzailearen edo sustatzaileen NANa(k).

✔ Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) edo baliokidean alta emanda egotearen ziurtagiria.

PAGE * MERGEFORMAT 2

✔ Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) alta emanda egotearen ziurtagiria.

✔ Erakunde juridikoa denean, eraketa egiaztatzen duen agiria.

✔ Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiriak.

✔ Bideragarritasun-plana eta negozio plana.

✔ Langileen kontratuak, halakorik balego.

✔ Minusbaliotasun-ziurtagiria, halakorik balego.

✔ Zinpeko aitorpena (II. Eranskina).

✔ Lan-eremuaren alokairu-kontratua edo salerosketaren dokumentazioa.

Laguntza eskatzeko epea

Eskaera egiteko epea: 2024/06/01etik 2024/06/30era.

Ebazteko epea: 3 hilabete eskabidea aurkezteko epea amaitzen denetik.

Eskabideak honako leku hauetara bideratuko dira:

- **GIZ BERMEO – Bermeoko Gazteentzako Informazio Zerbitzua**
  Irakaskintza kalea 14-16 - 48370 BERMEO - Tel.: 94 617 91 58

Bermeon, dokumentazioa aurkezteko:

BERHAZ BERMEO - Ertzilla kalea 6, Bermeo

- **URREMENDI LGE** - **Busturialdeko Herri Txikien Gazteria Zerbitzua**
  Domingo Alegria enparantza z.g. (Merkatua) - 48330 GERNIKA-LUMO - Tel.: 94 625 76 09

- **Gernika-Lumoko Gazteentzako Informazio Bulegoa**
  Foru Plaza 2 - 48300 GERNIKA-LUMO - Tel.: 94 627 02 15

Informazio gehiago
www.gaztedibusturialdea.eus
info@gaztedibusturialdea.eus
Dirulaguntza hauek enpresak sortzeko eta sendotzeko beste laguntza batzuekin bateragarriak dira.

PAGE *
MERGEFO
RMAT 2